

NAFARROAN ESKALADA EGITEKO GIDA

Carlos Velázquez

sua
EDIZIOAK

AURKIBIDEA

SARRERA..... 6

ETXAURI.....16

Sarbide eta sektore mapa	18
Zerumuga	19
Bizitza Dastatzen eta Rolwaling	20
Patanegra	22
Axeribaldi Hegoalde	24
Axeribaldi Ekialdea	25
Infernu gozoa	26
Bordillos	29
Kale Borroka 1.....	30
Kale Borroka 2	31
Kale Borroka 3	32
Peña de las Trampas 1.....	35
Peña de las Trampas 2.....	36
Arrano Beltza.....	38
Ilusioa	40
Iniciación.....	42
Escaleras de Ciriza.....	45
Jessica Mendebalde	46
Jessica Hegoalde	47
Gradas de Ciriza Central	48
Espolón del Indio 1	50
Espolón del Indio 2.....	52
Espolón del Indio · Ático.....	53
Iraultza	54
Sarbide eta sektore mapa	56
Orekan	58
Caña España	60
El Torreón.....	61
Pirulo	62
Emilio Castiella	65
Pared de la Sierra	66
Tótem · Balcón Iparralde · Hotel Azul	68
Techo de Mao eta Javier Olagüe	69

Pequeño circo	72
Balcón Hegoalde eta Mogollón	74
Balcón Ekialdea.....	75
La Rueda.....	76
El Huso	77
Pared del refugio Hegoalde	78
Africanito eta Cuestas	79
Kiriako Hegoalde Ditusuaian	80
Kiriako Mendebalde	82
Kiriako Iparralde	84
Cantero Mendebalde.....	85
Cantero Iparralde 1.....	86
Cantero Iparralde 2	87
Cantero Ekialde eta Iparralde 2.....	88
Cantero Hegoalde	89
Kiriako Ekialde	90
Pared del Boj.....	92
El Cervinico	93
La Mano eta Pared de los Maños.....	94
El Pie eta el Dedo.....	95
Sarbide eta sektore mapa	96
Peña del Zorro · El Garrafón.....	98
Peña del Zorro · Botellón	100
Peña del Zorro · Parrandón	101
Lantalang.....	102
Bargazabal.....	103
El Murico	104
Las Rayas.....	105
Peña Roya	106
Txiki	108

AITZERTEA [PEÑARTEA]..... 109

Sarbide eta sektore mapa	111
El Portillo	113
La Y eta Quesos	114
Estella	115

Rabo de León 1.....	116
Rabo de León 2.....	117
Piedra del Camino.....	118
Pared de la Sirga	119
Pacha	120
Orraun Hegoalde	121
Orraun Ekialde.....	122
La Placa	125
El Cilindro 1.....	126
El Cilindro 2	127
Budi	128
Elefante Pequeño eta Cobra.....	129
Elefante Grande	130
Canal del Lagarto	131
La Lagartija eta El Lagarto, Aguja Putreen Haitza.....	132

UNTZUEKO HAITZA [PEÑA UNZUÉ].....133

Sarbide eta sektore mapa	134
Hego-mendebalde	136
Lika.....	137

BIAIZPE · DOS HERMANAS.....139

Sarbide eta sektore mapa	142
Aixita Hego-ekialde.....	143
Hermana Mayor Hegoalde	144
Hermana Mayor Ekialde	146
Axita · Black Wall, Aguja de Aixita eta Milu.....	150
Axita · Tutokanula, La chica de Ayer	151
Hermana Menor Iparralde	152
Hermana Menor Orazulo	153
Hermana Menor Mendebalde.....	154
Hermana Menor Las Cuevas.....	156
Hermana Menor Plataforma.....	158
Balcón de los Buitres · Allegain	160

LARRAUN	163
Sarbide eta sektore mapa	164
Goldaratz · Putremalkor	166
Goldaratz Txiki.....	167
Otsopasaje · Behekoa	169
Otsopasaje · Akerburu	170
Otsopasaje · Ezkia	171
Kaxarna · Joxuntto	172
Kaxarna · Larraungo zutabea	173

BURUAUNDI	175
Sarbide eta sektore mapa	176
Ihabar	177

MADALENAITZ	178
Sarbide eta sektore mapa	180
Madalenaitz.....	182

AIZTONDO	184
Sarbide eta sektore mapa	185
Makurketa.....	187
Aiztondo.....	188
Sorginleze.....	189
Basoa 1, 2 eta 3.....	190
Irripe	191
Elkeitz	192

SARABE	194
Sarbide eta sektore mapa	196
Sarabe	197
Irurita	198
El Morro Mendebaldea.....	199
El Morro Hegoaldea.....	200
Urritz Ezkerra	202
Urritz Eskuineko	203

URBASAKO MENDATEA	204
Sarbide eta sektore mapa	205

Bargagain	206
El Boquete	207

LA SIMA	208
Sarbide eta sektore mapa	209
Pared de la Sima.....	210
La Sima 1 eta Sotokua.....	211
Pared de la Sima Ekialdea.....	212

JAITZ [SALINAS DE ORO]	213
Sarbide eta sektore mapa	215
Txingillaz	216

LEZAIA ETA EL BURON	218
Sarbide eta sektore mapa	220
El Burón 1 eta 2.....	222
El Burón 3 eta 4.....	223
Barranco de Lezaia · La Peña	224

ERREKAGAITZETA NAGORE	225
Sarbide eta sektore mapa	227
Txintxurrinea 1	228
Txintxurrinea 2.....	229

IGARI, MANTXOLA ETA MIRALDEA	230
Sarbide eta sektore mapa	231
Mantxola 1.....	232
Mantxola 2	233
Miraldea La Cueva.....	234

MONOLITO DE LEIRE	
LA CHIMENEA	236
Sarbide eta sektore mapa	238
Hegoaldea eta Mendebaldea 1	241
Hegoaldea eta Mendebaldea 2.....	242
Iparaldea. Aguja Pepe Aramburu.....	243
Mendebaldea.....	244
Peña Mayor eta Las Canteras.....	245

LISKAR	246
Sarbide eta sektore mapa	247
Eduardo Navarro	248
Cantera.....	249
Meka	250
Bolbora beltza	251

NAPARI [NAPAL]	252
Sarbide eta sektore mapa	254
Peña de Abajo	256

SALBATERRA EZKA	258
Sarbide eta sektore mapa	260
Peña Palomera eta La Cara del Hombre	262
Abuztuko Ekaitza	263
Abuztuko Ekaitza Sarrera - Olatuak - As	264
Olas Alto	265
La Garona	265
Sabaia Techo	266
Incongustos.....	267
Kriptaberri.....	268
La Garona 1.....	269
La Garona 2	270
La Garona 3.....	271
Cascada.....	272
La Garona Ekialdea	273

BIDANKOZE [VIDÁNGOZ]	274
Sarbide eta sektore mapa	275
Lapitxorronga Ekialdea	277
Lapitxorronga Hego-ekialdea	278
Belaskoko Harrartea 1.....	280
Belaskoko Harrartea 2	281
Belaskoko Harrartea 3.....	282
Belaskoko Harrartea 4.....	283
Belaskoko Harrartea 5.....	284
Belaskoko Harrartea 6.....	286
Belaskoko Harrartea 7	287

IZABA · BELOZKARRE.....	288
Sarbide eta sektore mapa	289
Izaba · Belozkarre.....	290

BELAGUA.....	292
Sarbide eta sektore mapa	295
Lakhura Hegoaldea	296
Picarras de Sanchogarde · Kaki Ez 1.....	297
Picarras de Sanchogarde · Kaki Ez 2	298
El Ferial · Zanpori · Arlas.....	299
Eraize	300

SAN FAUSTO	302
Errepide mapa	304
Sarbide eta sektore mapa	305
Bargagorria.....	306
Lepia Erreka.....	307
Akerzulo 1.....	308
Akerzulo 2	309
Berria	310
Txikipark	311
Altikogaña.....	312
Bota	313
Urtxintxa	314
Caracola	315
Eoceno Hegoaldea 1.....	316
Eoceno Hegoaldea 2	317
La Escondida.....	318
Eoceno Mendebaldea.....	319
Prehistoria.....	321
Lazkua	322
Luna Iparraldea.....	323
Pikutxis	324
Mirador de Lazkua.....	325
Txina.....	326
Rusia.....	327
Mongolia 3.....	328

Mongolia 2.....	329
Mongolia 1	330

PEÑAGUDA · AIZTONDETA	332
Sarbide eta sektore mapa	333
Peñaguda.....	334

LOKIZ.....	336
Sarbide eta sektore mapa	337
El Frontón eta Peña Roya 1	339
Peña Roya 1.....	341
Peña Roya 2	342
Sartzaleta 1.....	344
Sartzaleta 2 eta El Cuchillo.....	345

LARRAGOA [LARRAONA] · ARANARATXE · EULATE.....	346
Sarbide eta sektore mapa	348
Gore eta Piolin	350
Peña Roya 1.....	351
Peña Roya 2	352
Pedriza eta Franken	353
Novias.....	354
Parking	355
Bidador 1	356
Bidador 2.....	357
Zaldibeltz 1	358
Zaldibeltz 2	359
Azken Guda Dantza 1	360
Azken Guda Dantza 2-3	361
Birras.....	362
Jalin · Ameskoazarra 1.....	363
Ameskoazarra 2	364
Ameskoazarra 3.....	365
Ameskoazarra 4	366
Pikota del Fraile 1	367
Pikota del Fraile 2.....	368

Aranatxe · Sarbide eta sektore mapa	370
San Lorenzo.....	371
Plakas	372
Santa Isabel.....	373
Azpelaki.....	374
June	375
Urederra 1	376
Urederra 2	377
Pista	378
El Bosquecillo.....	380
Lisiaus.....	381
El Bosque eta Azpilduia	382

AXKIN ARRONDO	384
Sarbide eta sektore mapa	385
Sarbide eta sektore mapa	386
Untzaleku.....	388
Ñapaleku.....	389
Artxila Belekaka Nerea.....	390
Diedro eta Turrón.....	391
La Cabra · Zulutxiki.....	393
Ogiazutik	394

AIAKO HARRIA · KOPAKO HARRI	396
Sarbide eta sektore mapa	397
Tartalo.....	399
Endara, Bordillos eta Eguzkilore He- go-ekialdea.....	400
Brisakale Hego-ekialdea	401
Eguzkilore Ipar-mendebaldea.....	402

PEÑA DE LA TORRE, EL CUERNO ETA EL LOMO	404
Sarbide eta sektore mapa	405
El Cuerno	406
El Lomo	407

LEGENDA

	Ermita		Ibaia
	Aparkalekua		Haitz-horma
	Atsedenekua		Eskalada bidea (edozein kolorez ager daiteke)
	Kanpina		Ikusten ez den bidea
	Edateko moduko ura		Zintzilikatzea edo elkargune ekipatua
	Gasolindegia		Eskaladaz kanpoko elkargunea, ziur aski ekipatu gabea
	Bidea aurrera doa		Hurrengo elkargunerainoko rapel metroak
	Errepidea aurrera doa		Rapel lerroa
	Sartzeko leku gakoa		Eraikina, baserria, borda
	Iparra		Hilerria
	Seinaleztatu gabeko ibilbidea		Herrigunea
	Ibilbide seinalizatua PR		Oihana
	Bidea, bidezidorra		Heliportua
	Pista		Iturria
	Errepidea		Gailurra
	Autobia, autopista	AINGURATZE MOTA:	
	Trenbidea	P: parabolt	
	Erreka	K: kimikoa	
		Au: autobabesa	
		Espt: spit	

Orientazioa



Ez da umeekin joateko moduko aldea



Umeekin joan daiteke, kontu handiz



Umeekin joateko alde egokia



Gutxi gorabeherako minutuak aparkalekurik hurbilenetik pareta magalera

Urtaro egokia



Pareta magalaren makurdura



Ez eskalatu egun haizetsuetan



Txakurrik ez

SARRERA

Nafarroan eskalada egiteko aurreko gida 2009an argitaratu zen. Badirudi atzo zela, baina atzera begiratzen badugu eta orduan nola eskalatzen genuen eta orain nola eskalatzen dugun erreparatzen badiogu, desberdintasun handiak ikusiko ditugu.

Eskalada tradiziozko ohituren parte da Nafarroako landa eremuko harkaitz batzuetan. Nire iritziz, eskalada eremuak zaindu beharreko ondare baliotsua dira bai aisiaren, bai kirolaren eta bai gizartearen aldetik. Ez naiz ahaztuko harkaitz horien ingurumen balioaz, non kontserbatzeko eta babesteko beharra duten ekosistema eta espezie bitxiak eta hauskorak aurkitzen baitira. Oreak zaila da ingurumena babestu eta zaintzea eta eskalada praktikatzea. Baina lor daiteke baldin eta irtenbidea bilatzeko adinako ezagutza, enpatia eta jarrera baditugu.

Desiragarria, egingarria eta beharrezkoa da eskaladaren gaineko araudi dinamiko bat, zalantzarik gabe. Hori bai, araudi egoki batek aintzat hartu beharko ditu guztien eskubideak eta interesak. Arau dinamiko horretara iristeko, guztion inplikazio, koordinazio eta eginahal handiagoa behar da. Araudi horrek partaidetza espazioak ireki behar lituzke administrazio publikoarentzat, erakunde pribatuentzat, eskalatzaileen kolektiboentzat eta ingurumena defendatzen duten kolektiboentzat. Nafarroako eskaladak araudi arina eta eraginkorra behar du.

Administrazioak, zalantzarik ez, nahitaez inplikatu behar du, nahiz eta tunel-ikuspegia hartu ohi duen, nahiz eta motela den eta nahiz eta sarritan ez den izaten oso eraginkorra. Jakina, eskala-

tzaileen kolektiboak asko du egiteko; oro har, ingurumenaren gaineko prestakuntza eta ezagutza falta izaten dugu, baina zeresan inportantea dugu harkaitz hauen kontserbazioan eta ingurumen ondarean, eta hori denek asumitu behar dute. Nire ustez, ez da aski pareta magalera bizkar zorroarekin iritsi, eskalatu eta eskalatu, zure gauzak bildu eta etxera alde egitea. Eskaladako bi-deak eta hori baino ez kontsumitzea ez da egokia.

Azken urteetan, konturatu gara eskalada eta harkaitzen eta ekosistemen kontserbazioa modu arrakastatsuan bateratu diren lekuetan eskalatzaileek ulertu dutela ingurunea zainduta babesten dutela ondoena beren jarduera. Leku horietan, gestoreek ere ulertu dute ingurune hori babesteko modurik onena bertan denbora gehien pasatzen duten erabiltzaileekin aliantza egitea dela, hau da, eskalatzaileekin. Eskalada iraunkorraren ideia da hori, eta eskalatzaile asko gara haren aldezleak.

Jakina, gaur egungo eskaladan badira alderdi batzuk gogoko ez ditudanak, baina ez da orain unea horretaz aritzeko. Bai, ordea, kontatu nahi ditut bizi sumatzen ditudan uneak, nire gogokoak direnak, bizirik sentiarazten didatenak eta segur aski ni eskaladan jardutearen motibo direnak. Izan ere, mugimenduaren plazeragatik eskalatzen dut, batzuetan mundua desagertu egiten delako eta inguruan harkaitz metro gutxi batzuk bakarrik ikusten ditudalako eta kito; izan daiteke proiektu bat kateatzeko egin behar den eginahalagatik, harkaitza nire esku eta atzamarretan sentitzeko moduagatik, erregeleta bat estutzeak eta hartatik ti-

ratzeak sentiarazten didanagatik, airea, eguzkia edo hotza nire larruazalean sentitzeko moduagatik, edo edozein unetan eroriko naizela uste dudan luze zail bat egitean besoetan mina izan eta igotzen jarraituz sentitzen dudanagatik.

Baina, hala berean, beste motibo batzuk ere inportanteak dira niretzat. Gogoko dut eskalatzea elkarbanatzen duen jendea aurkitzen dudalako, batu egiten duen jendea dagoelako, isilean eskalatzen duena, agurtzen duena, bideak zaintzen dituen, eskaladarekin nolabait konprometituta dagoena, habien garaia errespetatzen duena, inguruan duenarekin kritikoa dena baina desberdintasuna onartzen duena, aparkatzean tokatzen dena okupatzen duena eta ondotik beste norbait etorriko dela gogoan duena, daukan maila gorabehera beste bat gehiago sentitzen dena.

Espero dut pentsamendu hauekin bat egingo duzula, gida honek argi egingo dizula eta lagunduko dizula eskalatzea zilegi egiten duten une bizi horiek aurkitzen.

Eskerrak

Oso inportantea da niretzat eskerrak ematea eskaladaren gaine-ko gida honetan parte hartu duten guztiei. Denon artean egin dugu; posible izan da eskalatzaile horien guztien partaidetzari esker, horietako asko adiskideak. Batzuek inplikazio handia oparitu didate, eta eskura egon dira noiznahi, nire eskari eta deiei erantzun diete, informazioa eman dute, erreseinak zuzendu dituzte edo, besterik gabe, iritzia eman dute mailari buruz. Eskerrik asko denei.

Hauek izan dira: Joseba Arlegi, Iker Garzia, Koldo Baiona, Jaime eta Aratz Sanzol, Alfredo Oses, Mikel Zabalza, Sonia Casas, Javier Garreta (Godedo), Iñaki Garreta, Carlos Ibar, Ana Sanz, Jabi Berasaluze, Eneko Cesar, Jose Zabalza, Mikel Ajuria, Lander Larrañaga, Iker Artola, Txema Sanchez, Mikel Saez, Xanti Susperregi, Jose Carlos Delgado Wey, Ion Del Barco, Ismael Makeda, Stig Larrañaga, Patxi Arocena, Aritz Landa, Mikel Madoz, Oscar Madoz, Mikel Purroi, Patxi Barbero, Andoni Larraga, Txurreo, Urko Araiz, Josema Berrocoso, Auxkin Galarraga, Ana Samoluk, Benito Caro, Fernando Otxoa Txina, Jon Arantzeta, Xabi Bariain, Aitzol Isasa, Xabier Galdos, Juanmari Negredo, Natxo Martinez, Samuel Fernandez, Alberto Osta, Jose Luis San Gil, Maialen Ojer, Xanti San Martin, Ander Uria, Ander Del Rio, Ander Zabalza, Edu Sola, Matieu Orillard, Bea Martinez, Endika Martinez, Unai Albira, Jose Bedia, Alberto Urtasun, Koldo Rosado, Igor Lasa, Eneko Benede, Antonio Akerreta, Iñaki Mateo, Gorka Karapeto, Unai Mendia, Diego Ioldi, Txemi C, Mikel Valdivielso, Fernando Perez, Eneko Pascual, Fidel Mendia, Ibon Mendia, Alberto de Blas, Juxe Jordana, Alex Nicolas, Juanjo Ariztegi, Gonzalo Roncal, Maren Velazquez, Unai Artola, Unai Etxarri, Asier Sanchez, Jabi Korera, Ion Gurutz Lazkoz, Josito Romay, Eduardo Teruel, Ioseba Zenborain, Pablo Fortuna, Txema Insagurbe, Jabi Mujika, Gerardo Telletxea, Mikel Azkona, Iban Gonzalez, Juanjo Iriarte, Carlos Gomez Catalan, Haizea Huarte. Natalia Fernandez, Ainara Romero, Ilargi Perez, Itziar Ibarra, Maialen Etxeberria, Xabi Paternain, Unai Garabietta, Fernando Perez Junior, Urko Zabala, Mikel Arizaleta, Carlos Daniel Garzia de Eulate, Mikel eta Aitor Morduin, Juan Manuel Kroma Hernandez, Natxo Ba-

rriuso, Andoni Eizagirre, Andrea Murillo, Maialen Bueno, Ernets Bernabeu, Alberto de Blas, Iñaki Larrañeta, Txiki, Andoni Labaien, Silvia Sanchez, Roberto Carballada, Juan Mari Feliu, Andres Martinez, Maribel Medina, Ana Diez, Carlos Delas, Jose Iñaki Azkona, eta Carmelo Fernandez.

Orobat eskertu nahi ditut Martin Montañes eta Napar Federakundea eskaladarekin duten konpromisoagatik. Eskerrak DENAri (Dibertsitatea eta Eskalada Nafarroan) eta Escalada Sostenible-ri, urte hauetan eskalada parte hartzaileagoa eta dinamikoagoa arautzea lortu dutelako, eta eskalada eremuak zaintzeko eta hobetzeko denbora eman eta eginahalak egiten dituztenei.

Nire eskerrak Argiñe Areitiori eta Sua Edizioak argitaletxeari, proiektu honetan konfiantza jartzeagatik, eta Nuria Urretari, diseinuan eta maketazioan egin duen lan onagatik eta izan duen pazientziagatik.

Orobat eskertu nahi ditut Iranzu, Joanes, Maren eta Abdul Rahman, gogo onez onartzeagatik gida hau egiten eman dudana denbora guztia, eta nire gauzen eta idazmahaiaren desordena jasateagatik, beti baitago gidaz, argazkiz eta erreseinaz beterik eta paper mataza horretan galtzen diren ez dakit zenbat gauza gehiagoz estalirik.

Gogoratu eta eskertu nahi ditut, azkenik, Nafarroako eskaladan aitzindari izandako ezinbesteko eskalatzaile horiek, niretzat jende miragarria eskaladarako zuten pasioagatik.

Ohar garrantzitsua

Eskalada kirol arriskutsua izan daiteke. Zure eta soka-lagunen segurtasunagatik kontrastatu gida honetatik ateratako infor-

mazioa. Eskalatzaile bakoitzak bere gain hartzen du eskalada segurua egiteko modua emango dioten teknikak eta prozedurak ikastea. Liburu honetan ageri diren datu guztiak eskalatzaile multzo handi batek emanak eta berrikusiak dira, baina, hala ere, hutsegiteak izan daitezke, edo datu batzuk aldatu egingo ziren berrekipatzeengatik, rapelen kokapenak eta zintzilikatzeak aldatu izanagatik... Horretaz gainera, eskalatzaile orok jaso behar du prestakuntza aldi bat irakasle tituludunen eskutik; horrek lagunduko dio progresio, segurtasun eta aseguramendu teknikak ikasten, eta dituen aukerak eta mugak ezagutzen. Gida honen editoreak eta egileak ez dituzte bere gain hartuko hemengo informazioa erabiltzearen ondorioz gertaturiko istripuak.

Sektoreetan hurrekin egoteko gomendioa

Pareta magal bat hurrekin egoteko aproposa ote den, gurasoek edo adingabeen arduradunek ikuskatu beharko dute beti. Iruzkinetan egokitasunaz egiten ditudan balorazioak arrisku objektiboetan oinarrituta daude, zeinak, oro har, erraz ezagutzeko modukoak izaten baitira, baina jakin behar da izaten direla pentsatzen edo detektatzen zailak diren bestelako arriskuak ere. Gainera, ez da gauza bera bi urteko haur bat edo hamar urtekoa, desberdinak dituzte mugimendu beharrak eta ez dira berdin kontrolatu behar. Gida honetako gomendioak erorketetan edo arriskutsuak izan daitezkeen pendizetan pentsatuz eginda daude, baita lurzorua erositasunean, zabaltasunean eta horizontaltasunean ere.

Pentsatzekoa denez, arriskurik gabeko paisaiarik ez dago; iragarritzen eta kontrolatzen oso zailak diren arriskuak daude; orduan,

erne egon behar dugu besteak beste harririk jausi ote daitekeen. Haur batek inoiz ez du egon behar pertsona baten hurbilean edo bertikalean hura eskalatzen ari denean. Eta, jakina, beti erabili behar du kaskoa pareta zolan dagoenean.

Gomendatutako urte sasoi

Iruzkinetan ageri diren ikono batzuek (udaberria, uda, udazkena eta negua) sektore jakin bat zein urte sasoiaren eskalatzea gomendatzen den adierazten dute. Horrek ez du esan nahi garai horretatik kanpo eskala ez daitekeenik. Baliteke sektore bat hegoaldera begira egotea eta udan eskalatzeko gomendiorik ez izatea eta egiaz bai eskalatzea joatea, izan ere, baldintzak egokiak badira eskala baitaiteke. Nola ez, kontuan izan beharko dugu egun lainotsua ote den, eguneko ze ordu den, horma nora begira dagoen eta nolako haizea dabilen. Denetan jarri ditugu beste ikono batzuk hormaren orientazioa edo orientazioak adierazteko. Horrela, jakingo dugu zein diren bero zakarreko orduak.

Graduazioak

Zenbat ordu eman ditugu bide edo luze baten graduaz edo mailaz eztabaidatzen? Batzuetan badirudi hil ala bizikoa zaigula. Eztabaida eta debate horietan, nire ustez, suharregi jokatzeko dugu. Gauza jakina da maila gauza subjektiboa dela, ez dela zehatza eta aldaera kopuru handiak gure zailtasunaren kalkulua baldintza dezakeela. Gure munduan, eskaladan, zorionez, ez dago epailerik bide baten maila zehatza erabakitzeke, eta, adiskide batek esaten didan bezala, luze edo bide bakoitzak gutxienez bi zailtasun

maila izan behar lituzke edo maila tarte bat. Gida honetan, saiatu naiz ahalik eta zehatzena izaten, jakinda ia ezinezkoa dela eta oso litekeena dela lortzetik urrun gelditu izana.

Nondik atera dira gida honetako graduazioak? Eskalada eremu batzuetan, hala nola Etxaurin eta San Fauston, eskalatzailerik kopuru handi bat kontsultatu dut. Etxaurirako, jende askok eman dit mailen gaineko iritzia. Lan nekeza izan da, baina uste dut beharrezkoa zela. Batez ere bi gauza izan ditut kontuan. Lehenik, gehienen iritzia eta, bigarrenik, zein mailatan ibiltzen den iritzia eman duena. Pentsatzekoa denez, oso zaila da maila altuak eskalatzen ari den batek ongi zehaztea nolako mailak dituzten gradu apaleko bideek. Horregatik, gradu ertain eta apalei dagokienez, zailtasun maila horietan eskalatzen dutenen iritzia bakarrik izan ditut kontuan.

Beste eskalada eremu batzuetan, tokiko eskalatzaileren iritzia hartu ditut, baita ekipatzaileenak eta bertara maiz joaten direnak ere.

QR kodeak

Sarbide mapetan eta gidako testu batzuetan QR kodeak jarri ditugu. Horien bitartez, Google Mapsi esker, zuzenean aparkalekura garamatzaten sarbide mapak eskuratuko ditugu, zeinetatik hautaturiko sektorera sartzeko bidea ateratzen baita. Beste QR batzuek inguruko zerbitzuen gaineko informazioa dakarte (ostatuak, dendak, jatetxeak...), eta tokikoak ez diren eskalatzailerentzako erabilgarria izan daitekeen beste daturik. Era berean, informazioa eskaintzen dugu eskalada egiteko dauden arauak

buruz, baita aholku teknikoak eta faunari, florari edo interes turistikoari buruzko informazioa ere.

Liburu honetan hegazti batzuen gaineko informazioa txertatu dugu QR kodeen bidez, baina espezie horiek ez dute zertan loturarik eduki ageri diren orrialdeetako parajeekin.

Eskaladako bideen ekipamendua eremu berrietan

Norbait ere oraindik eskaladarik egiten ez den eremu batean bideren bat ekipatzeko prest badago, aintzat hartu behar du harkaiztia espazio natural babestu batean egon daitekeela edo babes figura espezifikorik ez izanagatik espezie babestuak edo zaurgarriak egon daitezkeela. Beharbada harrapariak izango dira eta beharbada interes botaniko handiko landare espezieak. Zuzenena da eremuko basozainekin kontaktuan jartzea jakiteko eskalada biderik ekipatzen ahalko ote dugun. Haiek adieraz diezagukete nola jokatu.

Oso kontuan izan beharreko beste alderdi bat horma dagoen orubearen jabetasuna da; izan ere, publikoa edo pribatua izaten ahalko da. Nolanahi dela ere, bide bat ekipatu aurretik baimena eskatu behar dugu. Onena da dagokion udalera joatea. Mendi eta Eskalada Kirolen Nafar Federakundeak eta Dibertsitatea eta Eskalada Nafarroan elkarteak aholku ematen digute; gure ekipamendu proiektuak babesten dituzte, eta edozein zalantza argitzen dute eskalako bideen ekipamenduaren gainean.

Berebat da inportantea ekipazio lanaren gainean dugun ezagutza, prestakuntza eta esperientzia. Ekipamenduek kalitatea du-

tela eta segurtasun baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko, onena da prestakuntza ikastaro bat egitea edo eskarmentua duten ekipatzaileen eskutik ikastea. Nafar Federakundeak maiztasunez ematen ditu ekipamendu teknikei buruzko ikastaroak. Oso inportantea da kalitatezko materialak erabiltzea, baita harkaitz mota bakoitzari dagokion ainguraketa jakitea ere, eta funtsezkoa da hura behar bezala ipintzea. Material homologatuak izan behar dute dagokien erabilera emateko.

Ekipamendu arazoak. Eskalada eremuen mantenimendua guztion erantzukizuna da

Ekipamendu arazoak dituzten bideak topatzen baditugu — aingura deseginak, oso herdoilduak, oso gastatuak edo gaizki kokatuak dauden mosketoen zintzilikatzeak, arriskutsuak izan daitezkeen edo istripuak eragin ditzaketen harri nahiz bloke solteak...—, Nafar Federakundearekin kontaktuan jarri behar dugu eta ohartarazi. Edonola ere, funtsezkoa da denok arduratzea eskalada eremuen mantenimenduaz eta kontserbazioaz. Gutako bakoitzak geure espazioa aurkitu behar dugu, eta geure ahalbi-deen eta motibazioen arabera lagundu.

Komunikazio egokia beharrezkoa da, zure segurtasunerako

Azken urteetan, eskalatzailer berri pila bat hasi da etortzen eskalada eremuetara, eta oso maiz gertatzen da, gehiegitan, prestakuntza edo eskarmentu txikiko jendea. Hori dela eta, toki batzuetan jende gehiegi biltzen da, eta une arriskutsuak sortzen

dira, segurtasun aldetik ezagutza txikia dagoelako eta soka-lagunarekin ez garelako behar bezala komunikatzen.

Argi izan behar dugu komunikazio kaskarrak istripu larriak eragin ditzakeela, eta, nahiz eta ez naizen uniformetasunaren aldeko, uste dut beharrezkoa dela denok gauza bera ulertzea agindu batzuk erabiltzen ditugunean.

Heldu edo eutsi: Soka zintzilikatze-mosketoitik pasatu dugunean, agindu hori emango dugu soka tenkatzeko; horrela, behean aseguratzen gaituenak pareta zolara jaitsiko gaitu. “Atxiki” eta “blokeatu” ere esan ditzakegu, edo soka-lagunarekin adosturiko beste hitzen bat, baina inoiz ez “bilera” edo “utzi” (gainera “eutsi”-rekin nahas daiteke hitz hori).

Bilera edo elkargunea: Luze bat baino gehiagoko bidea egiten ari garenean eta erreleboa egiteko gunean zaudenean, muntatu duzu behar zenuena, eta autoaseguratu eta lotu egin zara; beraz, zure kideak, behean aseguratzen zaituenak, utzi egingo du aseguratzetik: utzi egingo du soka eta atera egingo du frenotik edo aseguratzen zaituen sistematik (Grigri, Reverso...). Ez bada behar bezala erabiltzen oso arriskutsua izan daiteke; adibidez, ez ezazu esan behera jaistea nahi baduzu edo norbaitek luze bakarreko bidetik zintzilikatuta jaitsi behar badu.

Ez nahastu inoiz “eutsi” eta “utzi”.

Badira beste esapide batzuk eskalatzaile hasiberriek erabiltzen dituztenak eta gaizki-ulertuak eragin ditzaketenak. Zerrenda luzea da. Ez da gauza bera eskalatzen hastea eta lehenengo eskalatzea, zintak jarritz eta bidea irekiz. Komunikazioa eta zure segurtasuna hobetzeko interesa baduzu,


baliagarria gertatuko zaizu *Mendizalearen Hiztegia*, online dagoena Ostadar Mendi Taldearen webgunean. Oso inportantea da formakuntza hartzea teknikari tituludunen eskutik; mendi federazioek maiz antolatzen dituzte hastapeneko eta hobekuntzako ikastaroak.

Nafarroan eskalada egiteko araudia





1- ETXAURI.....	16
2- PEÑARTEA.....	109
3- UNTZUEKO HAITZA [PEÑA UNZUÉ]	133
4- BIAIZPE · DOS HERMANAS.....	139
5- LARRAUN	163
6- BURUAUNDI	175
7- MADALENAITZ	178
8- AITZONDO.....	184
9- SARABE	194
10- PUERTO DE URBASA	204
11- LA SIMA.....	208
12- JAITZ [SALINAS DE ORO].....	213
13- LEZAIA ETA EL BURÓN	218
14- ERREKAGAITZETA · NAGORE.....	225
15- IGARI [IGAL], MANTXOLA ETA MIRALDEA	230
16- MONOLITO DE LEIRE LA CHIMENEA.....	236
17- LISKAR.....	246
18- NAPARI [NAPAL].....	252
19- SALVATIERRA DE ESCA	258
20- BIDANKOZE [VIDÁNGOZ].....	274
21- IZABA · BELOZKARRE.....	288
22- BELAGUA	292
23- SAN FAUSTO	302
24- PEÑAGUDA · AIZTONDETA	332
25- LOKIZ.....	336
26- LARRAGOA [LARRAONA] · ARANARATXE · EULATE.....	346
27- AXKIN ARRONDO.....	384
28- AIAKO HARRIA · KOPAKO HARRI	396
29- PEÑA DE LA TORRE, EL CUERNO ETA EL LOMO	404



INFORMAZIO JAKINGARRIA ↗



**CRUZ DE LOS
CENCERROSEKO
HISTORIA**



**NAFARROAKO
ESKALADAREN
HISTORIA**
Husoko lehen
igoera

Etxauri

Zalantzarik gabe, Etxauri da Nafarroan eskalada egiteko lekurik onena eta herrialdeko kirol eskolarik onenetako bat bere estiloan. Zaila da horrelako ezaugarriak dituen beste leku bat aurkitzea. Harkaitza oso kalitate onekoa da, eta morfologia aldetik bitxia. Denetik pixka bat aurki dezakegu, plakak zuloekin, kamuts batzuk, ur tanta arantzatsuak, ur arrasto gutxi batzuk sabai forman, pitzadura eta diedro batzuk, baina oroz gain plaka bertikalak daude tamaina erdiko ertzeekin eta erregeletekin.

Sarbilgo mendilerroaren labarrak ia bost kilometroko horma gutxi-asko zutak ditu. Harkaitz horietako batzuek sabai handiak dituzte, beste batzuek plaka bertikalak eta estilo eta zailtasun orotako bide kopuru handi bat gordetzen dute.

Ekipamenduak kalitatezkoak dira; ohikoak dira aingura herdoilgaitzak, aingura kimikoak eta mosketoi bikoitzeko zintzilikatzeak. Hormak hogeit metrotik ehun eta hogeita hamar metrorainokoak dira, eta harkaiztiaren gehiena hegoaldera begira

dago, nahiz eta badituen sektoreak ekialdera eta mendebaldera begira ere. Horretaz gain, sektore batzuk ditu iparraldean, udako bero zakarretan non eskalatua izateko.

Eskalada estilo nagusia kirol eskalada da, nahiz eta estilo tradizionaleko bide batzuk ere aurkituko ditugun.

Eskalada eremuaren irisgarritasuna, bertaratzeke egin behar den bide laburra eta Iruñearen hurbiltasuna dira leku honek dituen beste alderdi onetako batzuk. Etxauriko mikroklima eta ingurune natural zoragarria ere aipatu behar dira haren ontasunen multzoan.

Etxauriko hormetan, gaitzeko bi harkaitz monolitiko ikaragarri daude: Peña de los Canteros [Harginaren Haitza] eta Kiriako; mendilerroko hormarekin batera Callejon de las Trampas esaten diotena osatzen dutenak. Zalantzarik gabe, leku miragarria eta berezia. Peña de los Canteros dela eta, hura da idatziz jasota dagoen aurreneko igoera, 1902an egindako balentria. Bi etxau-


riarrek igo zuten, Jose Irujok eta Eustakio Lakuntzak, eta ziritzar batek, Domingo Pellok. Entzuna zuten gainean gurutze bat izaten zela, eta aurkitu ere aurkitu zuten, 1728ko data forjatua zuela; beraz, ez ziren lehenbizikoak izan hura igotzen. Kontuak kontu, igoera harekin, berretsita gelditu zen ordura arte jakinkizun zegoena, hau da: nork jokatu zuen lepoa monolito harkaiztsu hura XVIII. mendean igotzeko, nola igo zuten eta nondik. Horren ebidentzia bakarra gurutzea da. Inondik ere, igarkizunez betetako istorioa, misteriozko aire batek bilduta dagoena.

Beste monolito batzuk daude Etxaurin, nabarmentzekoak El Huso eta Rueca. Nafarroako eskaladaren historiari buruzko kontakizun batzuk eta Husoko lehen igoerarenak eskuragarri daude alboko orrialdeko QR kodeetan.

Etxauriko harkaiztiak eta haranak iragan zabala bezain interesgarria dute. Istorio bitxiak kontatu eta idatzi izan dira Cruz de los Cencerrosen misterioaz edo Peña de los Canterosera egindako lehen igoeraz, 1902an. Kontakizun horiek behin baino gehiagotan argitaratuak izan dira, eta dagoeneko ageri dira Nafarroan eskalada egiteko aurreko gidan, Sua Edizioak-ek argitaratua 1992an. Hona hemen, harkaizti honen historiaurreko zenbait gorabehera, labur kontatuak.

Horma hauetan gizakiaren arrasto ugari dago, eta Goi Paleolitaino joan gaitezke atzera, orain dela 30.000 urte pasatxora. Aldi hartan, klima zeharo bestelakoa zen, eta hori erakutsi dute Legintxiki aztarnategian egindako indusketetan, Etxauriko herritik hurbil, non desagerturik diren animalia espezieen aztarnak berreskuratu baitira, hala nola errinozero iletuarenak

eta leize hartzaerenak. Izotz aro hori bukatzearekin, gure aroa baino 10.000 urte lehenago, gizakiaren aztarnak areagotu egin ziren Etxauriko haranean; hala erakusten dute hogeitik gora aztarnategietan aurkitutako arrastoei. Silexez egindako gezi punta ugari sailkatu dituzte, baita ofita harria landuta egindako aizkorak eta zeramikak ere, eta, gutxienez, lau lekutan aurkitu dituzte pintura eskematikoak, horietako bi eskalada eremuan. Gure garaitik hurbilago, Burdin Aroan, aztarnategi urri baina garrantzitsu batzuk daude herri harresituak bazirela erakusten dutenak. Baskoiak ziren, garaian garaiko kultura nagusien eraginpean (zeltak, zeltiberiarrak eta, azkenik, erromatarrek). Herrikarik bitxiena eta ikusgarriena Peña Roya haitzeko gainean dago; El Balcon ere esaten diote, eta hala ezagutzen dute horma horietan eskalatzen aritzen direnek. Aztarnategi horrek defentsarako izango ziren egiturak ditu, eta beste egitura batzuk errituetarako izango zirela interpretatu dute arkeologo batzuek. Sarbide bakarra El Balconen iparraldeko ateka batean du; hortik, goialdera joan daiteke, eta hormetan ildaska bitxiak ikusiko ditugu. Ildaska horiek modua emango zuten horman zurtoinak eta taulak sartzeko; hala, defentsa erraza egiteko moduko zinezko gotorleku bat bihurtuko zuten haitza. Goienean bizitzeko moduko gainazal bat dauka, eta katilu itxurako zulo batzuk ikus daitezke zizelkatuta lurzoruan, etxola edo etxebizitza batzuen zutoinak kakotzeko balio ahal izan zutenak. Hortik oso hurbil harmaila batzuk aurki ditzakegu muino txiki batean zizelkatuta; pentsatu izan da aldare bat izango zela erri-tuak eta sakrifizio paganoak egiteko.



24.-Haziera	6c	15	P	☐
25.-Bukaera	6a	18	P	☐
26.-Soka&Block	7c?	18	P	☐
27.-Beti	6c	20	P	☐
28.-Hodi	7b+	20	P	☐
29.-Suri	7a	23	P	☐

